

**ESKOLAKO OHARRAK****MATRIKULAZIO EPEA**

Hurrengo urtarrilaren 18tik, astelehena, 29rarte, ostirala (biak barne), 2021/2022 ikasturterako ikasleak matrikulatzeko epea irekita egongo da.

Eskola ikusi edo informazio gehiago nahiko bazenute, eskolako Zuzendaritzarekin hitzordua eskatu eta eskola ezagutzeko bisita gidatu bat eskainiko zaizue.

MATRIKULA EGITEKO

Lekua: Elizalde HLHiko IDAZKARITZA (alde zentralerako hitzordua hartu 943490193 telefono zenbakira deituz)

Ordutegia: Goizean 9:00etatik 13:30era
Arratsaldean 14:45etatik 16:30era
(Beste orduren batean behar izanez gero, deitu)

Beharrezko dokumentazioa: Familia-liburua
Nortasun-agiriak
(aita, ama edo legezko tutorearena)
Udalak emandako erroldatze agiria
(familia unitatea)

matrikulazio
epea zabalik

**IHOTEAK**

Laster Ihoteak izango ditugu, otsailaren 5, 6 eta 7ko asteburuan hain zuzen ere. Horregatik, prestaketa ahalik eta azkarren hasi behar dugu. Eskolan berriak diren familiek eta oraindik zaku jantziak ez dituzten familiek, beraien seme-alaben tutoreari eskatu behar dizkiete, honela guk hemendik bertatik bideratuko baitugu beharrezkoa den materiala: mozorroa egiteko zaku oihala, biesak eta kriskitinak, ondorengo prezioa dute: 6 euro ikasleentzat eta 8 euro helduentzat.

